

AINTZIRAKO PITXERRA

1- Entzun ipuinaren audioa 2 aldiz eta gero irakurri ozenki.

[AUDIOA](#)

Aintzirako pitxerra

Bazen behin printze gazte eta harroputz bat. Errege izan nahi zuenez, aita eta gainerako pertsona zaharrak erresumatik kanpora bidali zituen.

Egun batean, urrezko pitxer bat ikusi zuen aintzira batean, baina ez beral ez bere soldadu eta zerbitzari guztiek, ez zuten lortu pitxerra hartzea.

–Neuk hartuko dut, maiestate –esan zion nekazari gazte batek.

Eta aintzira ondoko zuhaitz batera joan zen zuzen-zuzen. Adar batera igo eta urrezko pitxerra eskuan zuela jaitsi zen.

–Nola jakin duzu pitxerra zuhaitzean zegoela?
–galdetu zion printzeak harriturik.

–Galdetuz gero, zure aita eta erresumako zaharrek ere haxe esango zizuten: inguru osoan begiratu behar dela pitxerra non dagoen jakiteko.

Orduan konturatu zen printze gaztea nagusien esperientzia munduko eskolarik onena dela.

IPUIN HERRIKOIA



2. Markatu egia direnak.

- ☐ Printze gazteak kanpora bidali zituen bere aita eta gainerako zaharrak.
- ☐ Urrezko pitxerra nekazari batek lortu zuen.
- ☐ Pitxerra aintziraren hondoan zegoen.